

# XVIII. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA.

*Ereintza Elkarte*



## **SARRERA**

Errenteriako XVIII. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka 1996-ko Maiatzaren 1-etik 5-era ospatu da, edizio honetan merkatal eta kalitate arlotan, eta bisitari kopuruan ere, marka berri bat ezarriaz. Horrek, Euskal Herriko azoka zaharrenak, –egun Euskal Herrian dagoen eskulangintza tradizionalen oinarrituta batezere-, urtetik urtera gero eta zale gehiago dituela eta hemezortzi urte ondoren, oraindik bizitza luzea geratzen zaiola baieztatzen du.

Artikulu honetan, aurtengo edizioaren sail ezberdinetako datu garrantzitsuenak laburtu nahi ditugu, hasteko esanaz, 42 artisauen partehartzea izan genuela, Murtxanteko Martiartu anaiek upelgintzari buruz eskeini ziguten lan bereziaz gain.

Azokarekin bat eta aurtengo gai berezia bezala, etxebizitzaren dekoraketari egokitutako eskulangintzari leku berezi bat eskeini zaio; batetik Xenpelar Aretoan eskulangintzaren produktuekin soilik apailatutako etxebizitza baten erakusketa antolatuz eta bestetik, Azokaren stand onenari urtero eman ohi zaion sari bereziaren bitartez.

Orokorrean beraz, edizio berezi bat data aipagarri batean hain zuzen: Errenteriako Eskulangintza Azokaren adin-eldutatsuna, EREINTZA ELKARTEAK antolatuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Errenteriako Udala eta Gipuzkoa-Donostia Kutzaren babesa eta diru-laguntzaz osatuta.

## **AURKEZPEN EGINTZA**

Eskulangintza Azokaren XVIII. edizioaren aurkezpena Apirilaren 29-an, astelehena, Gipuzkoako Foru Aldundian, urtero ohi den bezala, egin zen. Egintza honetan, -komunikabide guztiak deituak zeudelarik-, Foru Aldundiaren ordezkari-tzan bere Ekonomi Saileko Diputatua den Guillermo Echenique jaunak, eta Ereintzaren ordezkari-tzan Jone Idiazabalek, Josu Izagirrek eta Mikel Lersundik parte hartu zuten.

Hemen esan beharra dago, gure aspaldiko helburu bat aurtengauzatzea lortu dela: hau da, Eskulangintzak, orain arte Foru Aldundiaren Kultur Sailean kokatzen zela eta aurtengauzatzea sailera pasa dela. Eta arrazoiak ez dira falta aldaketa horretarako; izan ere naiz eta garrantzitsua izan horrelako



Azoka batek gizarteari eskeintzen dion kultur eta etnografiko arloa ez galtzea, beharrezkoa da ere Eskulangintza eta artisauak sektore ekonomiko bat direla onhartzea, eta beraz alde horretatik tratamendu berezi bat behar dutela, etorkizunari begira bizirik ikustea nahi baditugu behintzat.

### INAUGURAZIO EGINTZA

Azokaren XVIII. edizioaren zabaltea maiatzaren 1-ean, asteazkena, egin zen. Bertan, bere babesa ematen diguten entitateen ordezkariek, gonbitatu eta laguntzaile zenbait, eta antolatzaileek parte hartu zuten. Horien artean:

- Guillermo Echenique jauna, Ekonomi Saileko Diputatu.
- José Antonio Santano jauna, Ekonomi Saileko Zuzendaria.
- Luis Oiarbide jauna, Kultur Saileko Zuzendaria.
- Miguel Buen jauna, Errenteriako Alkatea.

Joxe Mari Erkizia, Kultur zinegotzia, eta Errenteriako Udal talde politikoen bozeramaileak eta kuxaren ordezkariek.

Jone Idiazabalen aurkezpen labur baten ondoren, Guillermo Echenique Diputatu jaunak hartu zuen hitza eta bere atzetik Errenteriako alkateak. Zabaltae egintza ofiziala bukatu ondoren, agintari taldea, Azoka eta Erakustetari bira eman ondoren, Antolakuntzak eskeinitako lunch batekin agurtu zen.

### PARTE HARTURIKO ARTISAUAK LAN, MATERIAK ETA GEOGRAFI JATORRIAK

Aurtengo edizioan lanean aritutako artisauen kopurua 42-koa izan da, artisau hauek bere produktuak eta bere lan-teknikak erakutsi dizkigutelarik. Hauetaz gain, Murtxanteko Martiartu anai upelgileen bi eguneko saio berezia azpimarratu nahi dugu; izan ere larunbata eta igandean zehar 200 litroko upelen egintza prozedura osoa eskeini ziguten, bisitarien interesa nabarmen lortuaz.

Azokaren stand guztien artean, artisauak erabilitako lan-materi ezberdinak ikusi ahal izan dira, hala nola:

- Zura
- Otargintza eta Zuntzak
- Burni eta Metalak
- Buztina eta Harria
- Beira
- Ohialkiak
- Larrua

-Elikadura  
-Saillatu gabeko beste zenbait  
Artisauen geografi jatorriari begiratuaz berriz, honela banatu dira:

- Nafarroa (13)
- Gipuzkoa (10)
- Bizkaia (10)
- Araba (5)
- Iparralde (4)

Hauen artean, 13 artisau, Errenteriako azokara lehen aldiz etorritakoak dira, Martiartu Anaiak kontuan hartu gabe.

Pundu honetan derrigorrez aipatu behar dugu materialak, produktuak eta artisauen aukeraketa, prozedura luze eta zehatz baten ondoren egiten dela; horrela bakarrik lortu bait daiteke gure ustez, lanen kalitatea, erakarpina eta nobedadearen arteko oreka, eta honen ondorioz Azoka urtez urte bisitarien zat deigarria gerta dadila lortu. Alde honetatik, eta zenbait iritzien kontra bada ere, artisauen kopurua gehiegi batek, azokaren kalitatea gutxitu eta salmentak zaildu besterik ez dituela egiten uste dugu.

### BISITARIAK

Aurtengo edizio honetan eta bisitarien kopuruari dagokionez, marka berri bat lortu da, 16.000 sarrera salmentaren bitartez. Kopuru honi, sarrera dohain zuten beste zenbait kolektibo (profesionalak, ikastetxe - ikastolak, t.b) gehitu behar zaio, gutxi gora behera beste 2.000 pertsona zenbatuaz.

Lorpen honetako faktore aipagarrien artean zera esan behar da: orokorrean jendeak oso ondo erantzuten duela kuriositatea, arlo kulturala eta gauza berriak erosteko posibilitatea eskeintzen dion Azoka honi, eta ondorioz urtez urte hutsik egin gabe datorren ikusle multzo garrantzitsu bat lortu dela dirudi.

Eguneroko mogimenduari begira, Maiatzaren 1-ean, asteazkena eta Azoka zabalten zen eguna, 5.000 pertsona inguruan pasa ziren, egun hau bisitari gehien bildu zuen eguna izanik. Ostegun eta ostiralean, lanegunak zirelarik, profesionalen eta ikastola-ikastetxeren bisita programatuentzat utzi ziren batezere, nun haurrek galdera etengabeak egin zizkieten bertako artisauak.

Beraz, balorapen oso baikorra orokorrean; Eskulangintzarengatik eta konkretuki urteroko zita bilakatu den Errenteriako Azokarengatik, jendearen interesa gehitzen dituzela baieztatzen duena dudarik gabe.



## SALMENTAK

Salmenten arlo hau "a priori" zenbatzea gauza oso zaila da, batezere inungo kontrolik eramaten ez dalako. Hala eta guztiz, errealitateari hurbilduko zaion neurri bat ezartzerakoan, artisau beraien pozaldi orokorra aipatu behar da; izan ere Erretereriako Azoka hau - Euskal Herrian eta inguruan egiten diren Azokekin konparatuaz -, bere diru-iturri eta harreman komertzialen leku garrantzitsuen suertatzen baita gehienentzat.

Datu hau ez da kasualitate hutsa, orain dela 18 urte hasitako heziketa eta zabalkunde ahaleginaren ondorioa baizik. Honek, beste gauzen artean, eskuz egindako produktuen lan-prozedurak, bere zailtasun eta balore kulturalak, hau da, Eskulangintzaren ezagutza hobea ekarri du, eta ondorioz hura maitatzea eta balio duena ordaintzeko jarreran jartzea bisitari.

## DEKORATUTAKO STAND ONENARI SARIA

Azken urteetan egin ohi den bezala, Azokaren Antolakuntzak sari berezi bat ezarria du, kalitate estetiko onena erakusten duen stand-entzat, artisau beraiek beren stand-ak hobeto prestatu ditzaten eta Azoka bera ere itxuratuagoa gera dadila lortzeko asmoarekin.

50.000 pezeta eta Diploma dan sari hau, "Aitatxarka" Taldearen Tarsicio Rey iruñear artisaumentzat izan da aurten. Gipuzkoako Bazkundearen partaidez osatutako epai-maiak, "cartón fallero" deritzan eskulangintzari eskeinitako stand honi saria ematerakoan "beste produktuen artean, bere erraldoi, buruhandi, zaldiko eta soinen kolore eta ikusgarritasuna" azpimarratu zuen. Era berean Azokaren stand gehien apaintzeko maila ona aipatu nahi dugu ere, artisau beraiek duten interesaren seinaleztat.

Sari honen banaketa, maiatzaren 2-an, osteguna, arratsaldeko 4-tan Azoka bertan egin zen, Gipuzkoako Bazkundearen Idazkari Orokorra den Antonio López Etxeberria jaunaren eskutik.

## "ESKULANGINTZA ETA DEKORAZIOA"RI BURUZKO ETXEBIZITZAREN ERAKUSKETA

Artikulu honen hasieran aipatzen genuen bezala, gaurko dekorazioari egokitutako Eskulangintza arloa gertatu da aurtengo gai berezia. Hori dela eta, Azokaren ondoan, Xenpelar Aretoan, Euskal Herrian egun dauden zenbait artisauak egindako produktuekin ohizko etxebizitza bat apailatu zen.

Dekorazio proiektua, Donostiako Manu Valle dekoratzailearen eskutik joan zen, eta gaurko etxebizitza bat dekoratzeko garaian, Eskulangintzak ematen dituen aukerak erakustea zuen helburu. Etxea, 125 m<sup>2</sup>-koa, bi lo-gela, sukalde, jan-gela eta saloi batez osatzen zen. Bere muntaian honako etxe komertzialak ere parte hartu zuten:

- Txindor Decoración.
- Muebles Arzadun.
- Larogei S.A.
- Ceramicas Jorge Fernandez.

Erakusketa honek ukan duen arrakastaren seinale, bertara urbidu ziren bisitari kopuru handia eta entzundako iritzi onak dira. Bere bitartez Antolakuntzak, Eskulangintzak gaurko dekoraziori eskeintzen dion egokiera eta aukerak erakutsi nahi izan ditu, gure etxeetan normaltasun osoz erabili daitezken zenbait produktuen bitartez.

## AGURRA

Azoka honen arrakastak, Antolakuntzaren lana eta Instituzio babesleen diru laguntzaz gain, beste zenbait sektoreen parte-hartze eta borondatea ere eskatzen du, hala nola komunikabideen (prentsa, irrati, telebista, t.b.) harrera ona, publizitate etxeen zerbitzuak, kolaboratzaileen dohainezko laguntza, artisauen presentzia eta batez bitariaren erantzun ezin ohea. Bihoakie guztiei gure eskerrik beroenak, guztien lanak errealitatea bihurtu bait du aurtengo XVIII. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA.

